

## Ardura

**I**gandez ari naiz idazten. Egun kurio-  
soa, benetan, gaurkoa. Goizean, alaba txikie-  
na zortzietarako eto-  
rri zaigu ohera; eskuetan gosa-  
rirako taza more handia  
zekarrelarik, “aurpegi irribarre-  
tsua” deitzen dioguna. Tazak,  
begiak, sudurra eta barrirudia  
erakusten duen ahoa ditu. Erosi  
genueanean, taza huraxe gusta-  
tzen zitzaiola esan zigun, berak  
ere aurpegian beti barrirudia izaten duelako.  
Lezio bitxia jaso genuen orduan, etxeko txi-  
kienarengandik.

Ohera tazarekin etorri eta “tori ama, zure-  
tzako, nik baino gehiago behar duzu-eta” esa-  
nez luzatu dit. Oporretan taza berria erosi  
diogulako oparitu dit berea, baina berari  
baino niri zerbitzu hobea egingo didala esa-  
nez.

Gero, Kontxako estropadak ikustera joate-  
ko goiz ibili behar dugula esan diogunean,  
goizeko hamaiketan nesken txanda dela  
gogorarazi digu. Alaba nagusia ere, ordurako,  
ohera hurbildua zitzaigun. Eta zera galdetu  
dio aitari: emakumezkoen txandako onenak  
Donostiarrak-eko gizonezkoek baino bizko-  
rrago egingo ote duen... Ezetz erantzun  
behar izan diogu... eta txikienak, ohean etzan-  
da zetzan aitaren gainean hankak jarri, beso  
biekin tira egin eta ipurdia aitaren bizkarrera  
igotzen saiatu da, behin eta  
berriz, berak lortuko duela  
esanez, bai aitaren gainera  
igotzea, eta bai gizonezkoak  
adina izatea.

Igandero lez, prentsa ira-  
kurtzen aritu gara ondotik,  
hondartzan lehenengo, eta  
bazkal ostean gero. Lau urte-  
ko seme autista duen guraso  
baten eskutitza irakurri dut  
batean, zein laguntza gutxi  
eta zein bakarrik sentitzen  
diren salatuaz. Eta, bat-  
batean, umetokian kantzerra  
izan duen ezagun baten

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padriñ



Sarasola

hitzez gogoratu naiz. Kan-  
tzerra errotik eraztea lortu  
diotela esaten zidan, erra-  
dioterapiaz garbiketa oro  
egitea (kimioaren premiarik  
gabe), argalen argal egon  
dela azkeneko hilabeteetan  
eta erraz esaten zaiola alda-  
menekoari, “inoiz baino  
gogorrago izan behar duzu”  
edo “bukatu da, garbi-garbi

eginda utzi zaituztenez, orain, bizitzaz goza-  
tzera..!”. Gaitza besteen teiltuan dagoenean,  
gozo asko ateratzen omen zaizkigu hitz ede-  
rrak, hitz handiak, eta zein zaila den, egoera  
horretan bizitza aurrera eramatea... “Bakoitza  
bere munduan bizi gara” esaten zidan, “medi-  
kuez aparte oso kontsolamendu gutxi aurkitu  
dut inguruan...”.

Ardura. Ardura gailendu zait. Ardura ez  
ote garen itsuz betetako gizarte bat eraikitzen  
ari. Itsutasuna sinesten eta indartzen...

Arrastian, mendi ingurura ibilalditxo bat  
egitera joan garenean, txikien biek patinekin  
joan behar zutela-eta, bide-gorria dagoen leku  
lasai batera joan gara. Umeak aurretik abiatu  
zaizkigu. Handik denbora batera, hiru umeak  
lurrean ikusi ditugu, lanen bat egiten edo. Txi-  
kiena erori egin dela jakin dugu hurbiltzean,  
eroriko handi samarra. Belauna urratu duela  
eta odoletan hasi zaiola. Gu heldu garenerako,  
inguruko iturri bateko urarekin zauria garbitu-  
ta eta lurretik jasotako orbel garbi batzuekin,  
buruko ileko goma bati esker  
belaunean tiritu mendikoa  
prestatuta zeukaten...

Eta ardura, baliabiderik ez  
dutenekiko izan behar dela  
ulertu dut. Nahiz eta baliabi-  
deak dituzten batzuen gerta-  
erak ere oso gogorrak izan.

Baliabideak dituztenek  
irribarre egiten dakite, erron-  
kak jartzen eta hauei aurre  
egiten, eta irtenbideak aurki-  
tzen.

Oherakoan, “aurpegi irri-  
barretsua” estreinatu dut  
eta... ardura emetu zait. ■



Gaitza besteen teiltuan dagoenean,  
gozo asko ateratzen omen zaizkigu

hitz ederrak, hitz handiak,

eta zein zaila den, egoera

horretan bizitza aurrera

eramatea...

